



Arte garaikidearekin jolasean

ABENDUKO erauntsian heldu zen aurkezten ari garen perla, Durango-ko Azokak zenbait egun lehenago sortzen duen motroiloan.

Haurrentzako gida dela nabarmentzen du azalak, arte garaikidea ulertzeko eta identifikatzeko metodo modukoa dela. Eta haxe irakurrita produktu pedagogiko baten aurrean gaudela irudi lezakeen arren, hori eta gehiago da *Arte garaikidea?!* (Nerea, 2012). Bada eskuliburua, baina baita gonbite erakargarria ere, nazioarteko arte garaikidea ezagutzera deitzen duen amua. Eta bada, halaber, zortzi urtetik gorako haur, guraso, eta zeinahi zaletu lilura dezakeen gozagarria ere. Adibideak, azalpenak eta istorioak bikainak direlako, ongi

hautatuak, ongi idatziak, ongi erresolbituak. Jakina, euskarara txukun ekarriak.

New Yorkeko MOMAren (Museum of Modern Art) arte funtsetik abiatuta, obren erreperitorio kolorista eta anitza eskaini dute egileek. Esan nahi baita, Jacky Klein arte historialariak eta Suzy Klein idazle eta dibulgatzaileak. Xedea zera dute, mundu osoko 70 artisten lanen bidez arte garaikidea ezagutzera ematea. Besteak beste, Andy Warhol, Louise Bourgeois, Yves Klein, Joseph Beuys, Joan Fontcuberta eta Eduardo Chillida xehekatu dituzte. Espazioaz, material bitxiez edota elementu arraroez mintzo dira xume eta zehatz, eta ikus-entzunezko arte-lanaz, performanceez, instalazioez,

arte objektu eta tramankulu harrigarriez, artisten ideia eta teknika zabalduz...

Lanaren osagarri, artisten biografia txikiak, arte terminologiaren hiztegi moduko bat eta zenbait helbide elektroniko interesgarri datoz liburuaren atzealdean.

Sarreratik bertatik lotzen du liburuak. Askotan, azalpenak ematen hasi beharrean, begiak zabaltzeko eskatzen duelako. Obraren itxuratik harago jartzearen, sentimenduak erabiltzeko bultzatzen duelako. Parte hartzea gonbidatzen duelako: begiratu, aztertu, gozatu eta galderak egin. ■

Garbine Ubeda
Goikoetxea



Ganbazko burruntzia

Bartolo
taberna - jatetxea

Euskal sukaldaritzan eta pintxotan
aukera zabala

Fermin Calbetón, 38
Donostia - San Sebastián

© 943 420 279
www.casabartoloetxea.com